ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko uztailaren 5a, ostirala • 77 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KUARTANGOKO UDALA

Alkateordea izendatzea

Alkateak 60 zenbakiko ebazpena eman du 2019ko ekainaren 21ean, zeinaren bidez alkateordea izendatu baitu.

Ikusirik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23.3 artikuluak dioela alkateordea libreki izendatzen duela alkateak, eta lege horren 21. artikuluak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, alkateak pertsona hau izendatu du kargu horretarako:

Miren Meabe Carro.

Alkateordearen eginkizuna da alkatea guztiz ordezkatzea hura ez dagoenean, gaixorik dagoenean edo bere eginkizunak betetzen uzten ez dion eragozpenen bat duenean, baita alkatearen eginkizunak betetzea ere haren lekua hutsik dagoenean, alkate berriak kargua hartu arte.

Aurretik egindako izendapenak ondoriorik gabe gelditzen dira, eta erabaki honen edukiaren aurka dauden ebazpenak indargabetzen.

Hori jakinarazten da aipatutako arautegiak 46.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Zuhatzu Kuartango, 2019ko ekainaren 26a

Alkatea
EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO GONZÁLEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.07.05 05:31:49 Z